

2. Hasierako Vedismoaren edo Veda-ko *goratzarreen garaiaren ondoko erlijoiokera, Brahmana-tan edo agertzen dena, eta hinduismo klasikoaren jatorria izango zena: *Upanisad-etan mamituarena, alegia.

3. Hinduismo herritarren kontrakarran, erlijoiokera elitista, *brahmane apaizek bizi eta zabaldu zutena. Apaizen *kastaren gailentasuna eta nagusitasuna defendatzen zituen brahmanismo horrek. Vedismoaren joera erritualistaren kontra, joera metafisikoa hartzen zuen brahmanismoak.

Brahmanismoko liburu oinarrikoei Brahmana-k deritzate, Veda liburuetan parte handi bat osotzen dutenak.

Ik. Vedismoa; Hinduismoa; Veda.

Brahmatxarin

Antzinako *hinduismoan brahmane-aren biziera idealeko lau bidaldi edo *axrama-tan lehena, fededunak bere *izpiritubidea haste-tik ezkondu arte ibili behar duena. *Ezkongetzak definitzen du, hain zuzen, bereziki horrelakoaren biziera. Brahmanearen ikaslea esan nahi du; izan ere, *idazteunak ikastea du gazteak bere eginkizun nagusia, brahmane zaharren edo *vanapraztha-ren gidaritzapean.

Brahmatxarya

1. *Brahmatxarin-aren biziera adierazten du jatorriz. Horren egoeraren ezaugarriak nagusia ezkongetasuna zen, eta beraren bertute nagusia, berriz, *kastitatea edo garbitasun osoa. Horregatik, hinduismoaren *izpiritubidean *Brahman-en bila dabilen edonorentzako amesburua edo ideala da brahmatxarya, sexu-energia garbitasunaren bidez sublimatu eta izpirituzko aurrepena bideratzen duena. Ik. Sublimazioa.

2. Budismoak *monakoen biziera santua adierazteko erabiltzen du, edota horien antzera bizitzen saiatzen den *laikoarena ere bai.

Britainiar eta atzerritar bibli elkarteak

Bibliaren itzulpena argitaratu eta banatzeko 1804ean Londres-en eraikitako kristau-konfesioarteko erakundea. Horrelakoetan handienetakoa da.

Ik. Bibli Elkarteak.

Budatasuna

Gautama Budaren antzera, aparteko argitzapena lortu duen gizakia: hots, buddha edo "argitua" izatera iritsi dena. Jakinduria goren, unibertsal eta bikainaren jabe izatea esan nahi du horrek.

Buda izatera heldu denak bere jakinduria munduan zabaltzeko misioa du. Gautama Budaren irakatsi berberak zabaltzen omen dituzte ondoko buda guztiek.

Ik. Bodhizattwa; Budismoa.

Budismoa

Indian sorturiko filosofi sistema nastika edo heterodoxo nagusietakoa. Siddhartha Gautama-k (K.a. 566-486) Indian eratu eta gero Asiako ekialdera eta mendebaldera zabaldu zuen mugimendu erlijiozkoztat hartzen da gehiagotan. Baina fundatzaileak jaulkitako irakatsiek filosofi eskola handi bati eman zioten hasiera eta oinarria.

Erlijiozko mugimendu honen eratazailerak Siddhartha Gautama izan zen, bada, Sakya tribukoa, gerora Buddha (Buda) deiturikoa. Argitua adierazten du Buddha izenak; gabealdi eta *gogarte-aldi luzeen ondoren giza izatearen misterioa argitua zuelakoan eman zioten izen hori. Dixelako "Lau egia jator edo nobleetara" laburbildu zuen bere argitzapena:

- Oinazeak bizitza osoa hartzen du. Dena da oinazea (*dukkha).

- Oinazearen sorburua *irrika (tanha) da, biziarekiko atxekipenari dagokion gura-ria, batez ere.


- Irrika oro suntsitzea da oinaze guztien sendabidea; horrek, ordea, zera eskatzen du: edozein *karma eta ekintza enpiriko alde batera utzea. Horrela irekitzen da *nirvana-rako bidea.

- Nirvanaren daraman bidea "bide zortzi-koitza" da; zortzi puntuotan zuzen jokatzea eskatzen du: sinestean, asmoetan, hizkeran, egiteetan, bizitzeko baliabideetan, gogamena lantzeko ahaleginean, kontenplazio bilduan eta, azkenik, iharduera enpiriko ororen uztera daraman estasi edo oramendu askatzailan.

Budaren irakatsiak *berraragitzapenari buruzko irakatsia du oinarrian, zeinaren arabera hasierarik izan ez duen eta amairik izango ez duen etengabeko bizitza-ziklo lotuta bait gaude bizidun guztiok, azkenik katea horretatik aterako garen arte.

Gutako edozein, izaki zerutar gisa, ala gizaki gisa, ala haragirik gabeko izpirituen forman, ala animalia edota izaki ifernutarraren itxuran jaiotzea, *karma-tik dago, hau da, gure egiteen *meritutik ala demeritutik. Bizialdi jakin batean gertatzen zaigun on eta txar guztia ere karma-ri zor zaio.

Bizidunen kontra egindako bortxa da egiteetan bekatuzkoena.



Budismoa munduan

Beranduagoko budismoaren arabera, giza-kiagan ez dago inolako printzipio pertsonal funtsezko iraunkorrik, eta bai etengabe aldatuz doazen fenomeno psikosomatikoen multzoa. Budak, berriz, zera irakatsi zuen: agerpe edo fenomeno horiek ez direla nere zerbait, ni ere ez naizela fenomeno horiekin berdintzen, eta horiek ere ez dutela nire nortasuna osotzen. Beraz, iharduera empiriko oro baztertu beharra dago.

Nirvana zer empiriko ororen haraindikoa da; horregatik gizaki askatua --argitua-- ez dago inola ere definitzerik.

Jainkoa bazterrerera utzi zuen Budak; beraz, *askapena ez datza Jainkoarekin behin-betirako bat egitean, eta bai guztiok barnean daramagun funtsezko zerara itzul-tzean.

Gauzen iragankortasuna nabarmendu zuen Budak: horixe omen da, hain zuzen, oinaze guztien oinarri ontologikoa.

Geroago, unebatekotasun hutsaren erara aditu zuen iragankortasun hori: hau da, fenomenoak une-saila besterik ez omen dira, iragankortasunaren itxura ustela egiten dutenak, nahiz eta bananduta agertu.

Hasieran arrakasta handia ukan zuen Budaren predikuak. Jarraitzaile asko bildu zuen, bai *monako, bai *moja eta bai *laiko.

Berak ez zuen Indiako kasta-sistema onartzen, ez eta *brahmanismoko erritualismoa ere.

Laster hasi zen budismoa sektatan banantzen. Zatiketarik nagusia, ordea, Ibilgailu txikiaren (estuaren) eta Ibilgailu handiaren (zabalaren) artekoa izan zen. Ibilgailu txikia tradizioari atxekiagoa, kontserbakorragoa, testuen interpretazioan hitzei lotuagoa zen, eta norberaren argitza-pena zuen bere helburua; Ibilgailu handia, berriz, irekiagoa, idealistagoa zen, eta Bodhizattwa-en merituen usteonez salbamena lortu zitekeela uste zuen.

Zer da Bodhizattwa? Nirvana-ra sartzeko eskubidea lortu duen "argitua" da; baina bere kasa harako sarrera luzatu egiten duena, inoren salbamenaren alde lan egiteko. Ik. Bodhizattwa.

Ibilgailu txikiaren arabera, *monakoak dira budista jatorrak. Horregatik sekular edo mundutarren aldetik erreakzio gisa sortu zen Ibilgailu handia: argitzapen salbagarri-ra iristeko berentzako bide zuzenekoaren bila. Izaki guztiak izan omen daitezke buddha, horren arabera.

Harrigarria da, nola budismoa, sortu zeneko lurraldean, Indian, desagertu zen; hala ere Shri Lanka-ra, Birmaniara, Thailandiara, Kambodiara eta Vietnamera zabaldu zen, Ibilgailu txikiaren bidetik; eta Tibetera, Txinara eta Japoniara, Ibilgailu handiaren bidetik.

Ibilgailu handian bi filosofi sistema landu zituzten: Madhyamika, hutsune unibert-sala irakasten duena, hau da, gauzek ez dutela izate berenik; eta Yogatxara, gauzek beren izate giza gogamenean bakarrik dutela irakasten duena. Bi hauetatik sortu ziren Txinan beste hainbat, bereziki Chan eskola, *Zen eskolaren aurrekoa.

Ik. Lau egia jatorrak; Budatasuna; Erlinjioa eta Erlinjioak; Mahâyâna budismoa; Hîna-yâna budismoa.

J. Pérez Remón
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Budismoa

Haiti-ko eta Karibe-ko beste irla batzuta-ko beltzen artean oso zabalduko erlijio sinkretista da. Afrika mendebaldetik eramandako gurtza-modu batzuren eta kristautasunetik harturiko zenbait elementuren arteko nahastea da.

Ik. Sinkretismoa.